

Asisko gutuna

2011ko iraila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

35. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetako Asisko gutuna hirugarren printzipioaren inguruan dabil, frantziskotar espiritualitatea osatzen duten lauetatik. Eguneroko bizitza: kanporantz, solidaritatea.

Bidegabekeriaz eta sufrimenduaz beteriko mundu honetan, gutun honek gonbidatzen

gaitu besteengana eta mundura irekitzera, mundu gizatiarrago baten aldeko borrokara.

Printzipio honek ez darama berekin konpromiso berriak hartzea ezinbestean, baizik eta dauzkagunak doakotasunetik eta esker onetik landuak eta argituak izatea

Gogoetarako gaia

Solidaritateak duen poza

Garai hauetan munduari begira jarriz, oso zaila dirudi hor Jainkoaren eskua ikustea. Aitzitik lehen begi kolpean nora ezean dabilen gizadia ikusten dugu, injustizia ikaragarriekin eta bertan behera uzten gaituen sufrimenduekin. Gure lehen joera da munduari begiratzea eta hura juzgatzea, geure burua hitz handiz betetzea eta errudun handien bila hastea. Suminez sutan jarri eta bere horretan gelditzea. Edota haserretu eta injustiziak astintzen hastea, XXI. mendean ezin sinetsiak diren arazoei, adibidez goseari, konponbidea emateko boteredunek duten interes falta salatuz. Eta beharrezkoa eta profetikoa da salaketa hori, beldur eta harresizko garai hauetan.

Eta gauzak horrela, askotan ez dugu Jainkoaren salbamena inongo zirrikitan aurkitzen, ez dugu Haren presentziarik ikusten, ez dugu errugabeen sufrimenik ulertzen, ezin dugu hori onartu, eta kontra jartzen gara Jainkoa juzgatuz. Ezin ulertuz zapuztu eta ernegatu egiten gara. Eta hautapena egin beharrean gertatzen gara, desesperantzak duen ezinaren eta esperantzak duen ezohikoaren eta ezin ulertuaren artean.

Esperantzaren esanahiari sakonkiago begiratu, kontraesana badirudi ere, har dezakegu atsedean juzgu eta ezinetik. Ebanjelioaren bihotzaren misterioan Jainkoak digun maitasunarekin aurkitzen gara, Kristok adierazten duen maitasunarekin, ematen zaigun maitasunarekin. Jainkoaren begiradatik, gure esku utzia dugu mundua.

Geure zeregina eta poza mundu hobe baten alde borrokatzean datza. Munduaren errealitateari egin diezaiokegu aurre esperantzatik. Charles de Foucauld-ek esana dugu: "Sufritu eta maitatu daitekeenean ahalmen handia dugu, indar handia, mundu honetan izan daitekeen indarrik handiena".

Geure zailtasunak eta sufrimenduaren eta injustiziaren kontraesanak gorabehera, maitasunarena da gure borroka. Geure bizitzari sinestun gisa heltzea, mundu humanoago baten aldeko borrokari ekitea da. Ez dira desagertzen gaizkiari buruz ditugun galderak, baina besteekin batera mundua bizigarriagoa egiten saiatuz, hurbil daiteke gure begirada giza bihotzaren misteriora, Jainkoaren bihotzaren misteriora.

Ebanjelioko pasartea: Mt 11,25-30

«Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko. Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere inork ezagutzen, Semeak baizik eta

Semeak agertu nahi dionak. Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedean. Har ezazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; eramanerraza baita nire uztarria eta arina nire zama».

Frantziskotar pasarteak

“Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen eta gaixotasun eta larrialdia eramaten: zorionekoak bakean sufritzen dituztenak, zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta”. Horrelaxe berradiskidetu eta baketu egonik kantatzen du Frantziskok, eta ez hain zuzen gauzak egoki eta guztiz ondo zihoazkiolako ... Bere maizko gaixotasunek ahuldua, bere taldeko anaiek beraiek ere gogor kontra egiten ziotelarik, bere garaiko lepradunen zorte bidegabekoak mindua, Frantziskok ez du protestatzen, ez da hori bere estiloa; aitzitik konfiantza izan eta zain gelditzen da, eta Jaun goi-goiko eta onari oihu egiten dio: “Zu zara apaltasuna, zu zara pazientzia, zu zara otzantasuna, zu zara justizia, zu zara sendotasuna ...”.

Frantziskotar espiritualitatea gaur bizitzeak berekin darama pazientziaz zain egotea eta Jainkoari konfiantza sakonez oihu egitea eta otzantasunez jokatzeko, Jesusek bezala: “on egiten eta deabruaren menpean zeuden guztiak sendatzen igaro zuen bere bizitza” (Eg 10,38).

Anai Roger-ek Hiroshiman errezaturiko otoitza

Gizon-emakume guztien Jainkoa,
zer pentsaturik ez dakigula gaude
errugabeen sufrimendua ikusita.
Egizu gure bizitzak izan daitezela
zeure errukia sumatzeko ispilu.
Jesus, berpiztua zarena,
zure ebanjelioak hori du harrigarria:
beti zatozela guregana.
Edonon gaudela ere
zu beti gure zain zaude.

Erreparatzen dugu,
barkamenik eta berradiskidetzetik gabe,
ez dagoela etorkizunik geure buruarentzat,
ez dagoela etorkizunik lurreko nazioentzat.
Gizadiaren nahigabeak eta sufrimenduak
arintzen dituzten horietakoak izan nahi genuke.

Gutuneko azken hitzak

“Hain zuzen giza duintasuna eta kontzientzia daukagulako, hauta dezakegu egoismoaren bultzada bat baino zerbait gehiago izatea. Hauta dezakegu solidaritatea”.

2011ko urriko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urriko erreferentzia guztiak:

1 Lk 10,17-24	8 Lk 11,27-28	15 Mt 11,25-30	22 Lk 13,1-9	29 Lk 14,1,7-11
2 Mt 21,33-43	9 Mt 22,1-14	16 Mt 22,15-21	23 Mt 22,34-40	30 Mt 23,1-12
3 Lk 10,25-37	10 Lk 11,29-32	17 Lk 12,13-21	24 Lk 13,10-17	31 Lk 14,12-14
4 Lk 10,38-42	11 Lk 11,37-41	18 Lk 10,1-9	25 Lk 13,18-21	
5 Mt 7,7-11	12 Lk 11,27-28	19 Lk 12,39-48	26 Lk 13,22-30	
6 Lk 11,5-13	13 Lk 11,47-54	20 Lk 12,49-53	27 Lk 13,31-35	
7 Lk 11,15-26	14 Lk 12,1-7	21 Lk 12,54-59	28 Lk 6,12-19	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko iraila. 3. printzipioa: eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna

35. zenbakia

Hil honetan Asis Sareko hirugarren printzipiora gatoz berriro. “Eguneroko bizitza: kanporantz, solidaritatea”. Uda bukatzearekin eta eguneroko bizitzara itzultzearekin batera, hil honetan gonbitea egiten zaigu gogoeta eta otoitz egitera, amildegira eta norabidea galtzera doala dirudien munduari begira gai hau hausnartuz: “solidaritateak duen poza”.

Solidaritateak duen poza

Gaia lantzen hasteko, emaiouzu begirada bat zeure bizitzari urrutikoenetik hasi eta gertukoenera etorritz. Nolako zailtasun eta bidegabekerietan gertatzen diren pertsonak, gaitzak eta oinazeak, bakardadeak eta sufrimenduak, irtenbiderik gabe uzten dituela dirudielarik. Eta orain egin iezaiozu zeure buruari galdera hau: eta nik, zer egin dezaket?

Urruti gelditzen zaigunari begira, pentsa dezakegu ez dagoela gure esku eta ezin dudala ezer egin, baina beti dago zerbait egiteko. Has zaitez gehien ukitzen eta hunkitzen zaituzten egoerei izena jartzen, eta sala itzazu.

Gaizki dauden pertsonak gertuagokoak dituzun neurrian, inplika zintezke zu zeu gehiago, salaketa hutsean gelditu gabe. Zeure bizitzako une zehatz honetan ere, non eta norengan jar dezakezu itxaropena? Eta salaketa eta itxaropen hori Jainkoagandik begiratzuz jartzen baditugu?

Hil honetan zehar, saia zaitez gaizki dagoen guztia Jainkoaren eskuetan uzten, eta eska iezaiozu irakats diezazula bidegabekeriari, oinazeari, sufrimenduari... Berak bezala begirutzen. Ikusiko duzu nola joango den aldatuz zure begiratzeko modua eta zuk besteen alde eginak.

Erreinua jende xumeari agertua

Jesusek apal eta xaloei azaltzen die Aitak agertu diona, eta Berak Seme bezala ondo ezagutzen duena.

Apalek soilik aurki dezakete, bizitza Harengandik izango dela arinagoa eta eramanerrazagoa.

Jesusek bizitzeko modu berri bat dakar Aitagandik, eta bizitza berria gutako bakoitzarentzat eta mundu

guztiarentzat, berorretan baloreak erabat aldatzen direlarik; baina horretarako norberak entregatu egin behar dio bere burua, “gozoak eta bihotz-apalak” izaten ikasi behar dugu, horrela bere burua Aitari ematean eta hura gorestean Jesusek sentituko zuen poza senti ahal izateko.

Egizu otoitz testuaz baliatuz, zeure munduaren neke, estutasun eta beldurrak... Jesusekin bizituz. Eska iezaiozu Aitari eman diezazula, solidario izateko eta besteei emana bizitzearen poza sumatzeko beharrezko duzun bihotz gozo eta apal hori.

“Zu zara apaltasuna, zu zara pazientzia...”

Frantziskok gaixotasunean, ahulezian... gorespen eman zion Jainkoari. Zer egiten dugu guk? Kexatu ala gorespen eman?

Ziur aski gure jokabideetatik urruti ikusiko dugu Frantziskorena, baina hura bezala saia gaitzen Jesusen hitz horiek guretzat ere badirela deskubritzen; eta beroriek pazientziaz praktikan jarritz, izan dezagun konfiantza geure burua egunean egun pixka bat gehiago Jaunaren eskuetan jarritz joango garela.

“...zer pentsatu ez dakigula...”

Egizu otoitz testuaren bidez, eta geldi zaitez ezinean eta zer pentsatu ez dakizula munduan gaizki dagoenaren eta sufrimenduaren aurrean.

Utzi zeure burua Haren eskuetan eta haren Hitza aurkituko duzu, besteei emana bizitzeko eta haien saminak arintzeko.